

**HEZKUNTZA SAILA**

EBAZPENA, 2017ko azaroaren 15ekoa, Hezkuntza sailburuordearena, unibertsitate aurreko irakasmaitetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntzak erabakitzen dituen (EIMA 2.0).

Euskarazko ikasmaterial digitaletarako laguntza-bideetara dei egin zuen Hezkuntza Sailak 2017ko ekainaren 27ko Aginduz (2017ko abuztuaren 8ko EHAAn). Hori dela eta, Ebazpen-batzordearen proposamenez honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.– 2017ko ekainaren 27ko Aginduan adierazitako prozedurari jarraituz, guztira banatzeko dauden 200.000 euroko diru-partidatik Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren diru-laguntzak esleitzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eta III. eranskinetan aipatzen diren ikasmaterialei diru-laguntzarik ez ematea. Diru-laguntzarik ez ematearen arrazoiak ondokoak dira: II. eranskinean jasotzen dira Aginduaren 25. artikuluko lehen betebeharra ez betetzeagatik kanpoan gelditu den eskabidea, hau da, ikasmaterialak berria izan behar duela dioen betebeharra ez betetzeagatik, eta, Proiektuaren Egitura, Edukiaren Egokitasuna, Demoa edota Aurrekontua ataletan gutxieneko maila lortu ez dutenak, Deialdiaren 16.2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, III. Eranskinean, diru-partida agortu duen proiektuak baino puntuazio txikiagoa lortu duten proiektuak ere kanpoan gelditu dira, laguntza-deialdiaren 16.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpena Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoen iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamar (10) egun naturaleko epea izango du diru-laguntza esleitu zaion produktore bakoitzak bere produkzioa egingo duen ala ez ziurtatu eta lan-egutegia aurkezteko. Esleitutako diru-laguntzari idatziz berariazko ukoa egiten ez badiote onuradunek kudeaketa organoari, esleitutako diru-laguntza onartutzat joko da.



**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsua egin dezakete interesatuek, Hezkuntza sailburuaren aurrean, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ebazpen honetako euskal eta erdal idazkien artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik hura hartuko da korapiloa askatzeko gidari.

Gasteiz, 2017ko azaroaren 15a.

Hezkuntza sailburuordea
MIREN MAITE ALONSO ARANA



I. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO DUTEN PROIEKTUAK

Creative Commons			
ESPEDIENTEA	ENTITATEA	IKASMATERIALAREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
2017/013CC	Badihardugu Deba Ibarreko Euskera Alkartia	Herritarren ahotsa. Transmisioa ikasgelan. Euskara eta literatura II	30.000,00
2017/016CC	Fundacion Asmoz de Eusko Ikaskuntza	Haurrak eta musika II	30.000,00
2017/006CC	Andres David Espinoza Alvarez	Euskal Herria eraikitzen. XIX-XXI. Mendeak	9.655,12
2017/010CC	Multimedia Educativa S.L.	Arduino eta Automatak	22.220,00
2017/001CC	Miren Garbiñe Candina Acebes	Pikto-argazkiak	18.312,40
2017/018CC	Universidad de Navarra	Deribatuak	9.812,48
Orotara			120.000

Jabetza Pribatua			
ESPEDIENTEA	ENTITATEA	IKASMATERIALAREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
2017/006 JP	Ediciones Don Bosco	Unitate didaktiko digitalak. Euskara eta Literatura DBH	30.000,00
2017/005 JP	Euskal Herriko Ikastolak	Euskara E-liburua	30.000,00
2017/002 JP	Gestionet Multimedia	Bullying	7.440,00
2017/007 JP	Asoc de Txistularis del Pais Vasco	Txisturako Practice	12.560,00
Orotara			80.000

**II. ERANSKINA****LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK**

Aginduaren 25. artikuluko lehen betebeharra ez betetzeagatik. Hau da, ikasmaterialak berria izan behar duela dioen betebeharra.

Creative Commons		
ESPEDIENTEA	ENTITATEA	IKASMATERIALAREN IZENBURUA
2017/014CC	Eusko Ikaskuntza Sociedad de Estudios Vascos	Euskal Herria eraikitzen: XIX. Mendetik XXI. Mendera

Proiektuaren Egitura, Edukiaren Egokitasuna, Demoa edota Aurrekontua ataletan gutxieneko maila lortu ez duelako, deialdiaren 16.2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Creative Commons		
ESPEDIENTEA	ENTITATEA	IKASMATERIALAREN IZENBURUA
2017/012CC	Tazebaez S. Coop.	Sortzearen abentura
2017/007CC	Andres David Espinoza Alvarez	Parke naturalak ezagutu
2017/008CC	La Pecera S Coop Pequeña	Natura 2



III. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Diru-partida agortu duen proiektuak baino puntuazio txikiagoa duelako, 16.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Creative Commons		
ESPEDIENTEA	ENTITATEA	IKASMATERIALAREN IZENBURUA
2017/017CC	Fundacion Asmoz de Eusko Ikaskuntza	Baloreei bultzada!
2017/011CC	Iametza Interaktiboa S.L.	Izarren abentura
2017/009CC	La Pecera S Coop Pequeña	Zenbakien zirkua

Jabetza Pribatua		
ESPEDIENTEA	ENTITATEA	IKASMATERIALAREN IZENBURUA
2017/001 JP	Gestionet Multimedia	Helduen euskalduntzea
2017/008 JP	Erein SA	Matematika DBH 1
2017/009 JP	Erein SA	Matematika DBH 2
2017/003 JP	Elkar-Ikastolak zerbitzuak	EKI1 Matematika E-liburua
2017/004 JP	Elkar-Ikastolak zerbitzuak	EKI2 Matematika E-liburua